




Interneteko konexioaren abiadura neurtu

Interneteko abiadura-probak zure Interneteko konexioaren abiadura neurtzen du. Interneten abiadura honela proba dezakezu:

1. [Google.com](https://www.google.com) webgunean sartu eta "prueba de velocidad de Internet" bilatu.
2. Egin klik "Realizar prueba de velocidad" botoian.

Probaren emaitzak interpretatzea

Probak igotzeko eta deskargatzeko abiadura neurtzen du, baita Interneteko konexioaren latentzia ere. Interneteko konexio onenekin, igoera- eta deskarga-abiadurak altuak dira eta latentzia txikia da.



- **Deskarga-abiadurak** informazioa irits dakizukeen abiadura adierazten du. Adibidez, fitxategi handiak deskargatzeko behar duten denborari edo irudi asko dituzten orriak agertzeko behar duten denborari eragiten dio. Deskarga-abiadura segundoko megabitetan neurtzen da (Mbps). Bideokonferentzia bat egiteko 2.5 Mbps edukitzea gomendatzen da.
- **Igotzeko abiadura** informazioa transferitzeko daukazu azkartasuna da. Adibidez, sare sozialetan argazkiak argitaratzeko behar den denborari eragiten dio. Igoera-abiadura segundoko megabitetan neurtzen da (Mbps). Bideokonferentzia bat egiteko 3.0 Mbps edukitzea gomendatzen da.
- **Latentziak** zerbitzariaren erantzuna jasotzen duzun abiadura neurtzen du. Denbora errealeko aplikazioak erabiltzeko, hala nola bideo-deiak eta online jokoak, garrantzitsua da erantzuteko denbora txikia izatea. Latentzia milisegundotan (ms) neurtzen da. Bideo-deiak egiteko balio gomendatuak:
 - < 5 ms sistema bikaina da
 - < 30 ms onargarria da
 - < 60 ms bideokonferentzia mantendu daiteke, baina irudia gelditzeko arriskua dago
 - < 100ms ezin da irudiaren jarraipena bermatu, ezta emisioa ere

Beraz, bideokonferentzia bat baldintza onenetan egiteko, gutxienez 5.5 Mbps eskusiboa eduki behar dira zure sarean, eta latentzia 30 ms ingurukoa izan behar da.